

PRUEBA DE ACCESO A LA UNIVERSIDAD
MAYORES DE 25 Y 45 AÑOS

PROBA OROKORRA

2016ko PROBA



EUSKARA

PROBA

ERANTZUNAK





Irakurri honako testu hau eta erantzun testuaren ostean datozen galderei.

Ikusi duzue Amama filma? Eta entzun Berri Txarrak taldearen azken diskoa? Nola eskuratu dituzue film edo kantu horiek? Internet bidez lortu dituzue? Debalde?

Duela 20 urte, filmak ikusteko zinema aretoetara ala bideo-zinta eroatera/alokatzera joaten ginen. Orain, ordea, Interneti esker, guztia aldatu da. Modu errazean eta azkarrean eskura dezakegu edozein eduki, baina kontsumitzen ditugun eduki gehienak debalde lortzen ditugu. Hau da, ez dugu eduki horien ordainetan ezer ematen. Horrek guztiak zaildu egin du sortzaileen egoera, eta formula berriak asmatzen ari dira irtenbidea aurkitzeko.

Hainbat eduki daude sarean, eta batez ere ikus-entzunezkoak dira deskargatuenak: % 38 filmak dira; musika taldeetako kantu solteak % 24; % 18 futbol partidetakoa saioak, eta % 11 bideo-jolasak, liburuak eta telesailak. Hala eta guztiz ere, egunetik egunera gero eta jende gehiago dago prest Interneteko edukiak eskuratzerakoan ordaintzeko, baina zeren truke?

Gaizka Izagirre kazetaria da, eta astero-astero Argiako Ikusi Makusi, zer ikusi? blogean hainbat telesailen eta filmen inguruan idazten du. Bere lana egin ahal izateko, film eta telesail mordoa ikusten du, baina nola eskuratzen ditu eduki horiek guztiak? Gaizkaren ustez, doan izan behar dute Interneteko edukiek? Kazetariarengana jo dugu, gehiago jakiteko asmoz.

“Nire ustez, denok ulertzen dugu guztia doan izatea ezinezkoa dela, baina, ordaintzen baduzu, zerbait berezia eskaini behar du produktu horrek, esaterako, iragarkirik ez izatea edo jatorrizko hizkuntzan ikusteko aukera eskaintzea. Horrela ez bada, ez du inork erosiko, ezta harpidetuko ere”, esan digu Gaizkak.

Interneten edukiak jartzeko aukerak abantaila asko ekarri ditu. Esaterako, sortzaileen lana hedatzen lagundu du: “Orain dela urte batzuk, zailena jendearengana heltzea zen. Gaur egun errazagoa da hori. Esaterako, websailen kasuan, proiektua bukatu eta Youtuberen edo Vimeoren bidez argitaratu dezakegu. Hala ere, konpetentzia gogorragoa dago, telesail, pelikula, musika edo disko asko baitaude Interneten eskuragarri, eta lehiakortasun horrek besteengandik bereizi beharra sortzen du”.

Bestalde, Gaizkaren hitzetan, ikus-entzunezko produktuetan kantitateak ez ezik, kalitateak ere gora egin du: “Telesailetan, esaterako, gainerakoetatik bereizteko eduki asko garatzen ari dira, eta horretarako gidoiak eta istorioak izugarri landu eta hobetu dira”. Beraz, Internetek lehia handitzea eta edukiak gero eta hobeak izatea ere ekarri du.

(...)

Ariane Retegi.
Zinea Sortzen
(Ikasbil.net gunetik jasota)



GALDERAK

1. Testuaren ulermena. Aukeratu erantzun egokia testuak dioena kontuan hartuta. Biribildu erantzun zuzena. (3,5 ptu)

1.1.

- A. Musika eta film sortzaileek ez dakite zer egin euren produktuak saltzeko Interneten.
- B. Interneten doan deskargatzen diren produktuak direla eta konponbideak bilatzen ari dira sortzaileak.
- C. Interneten, orain, duela ur hogeitau urte baino errazago deskargatzen ditugu produktuak.
- D. Erraz eta doan ditugu era guztietako produktuak Interneten.

1.2.

- A. Interneten liburuak eta telesailek dute arrakastarik handiena.
- B. Jendeak telesailak eta futbol partiduak ikusten ditu Interneten.
- C. Interneten, batez ere, musika eta filmak deskargatzen dira.
- D. Era guztietako produktuak deskargatzen dira Internetetik.

1.3.

- A. Jendeari gutxi axola arazo hau.
- B. Kontsumitzaileek ez dute ezer ordaindu nahi.
- C. Kontsumitzaileak zerbait egiteko asmoa erakusten hasi dira.
- D. Kontsumitzaileek pirateria mota hau bukatu behar dela uste du.

1.4.

- A. Bere lanerako Internet baliatzen duen kazetaria da Gorka Izagirre.
- B. Blog bati buruzko iritzia ematen duen kazetari espezialista da Gorka Izagirre.
- C. Gorka Izagirrek *Ikusi Makusi* egunkarian egiten du lan.
- D. Iritzia ematen du Gorka Izagirrek Argia egunkarian.

1.5.

- A. Izagirreren iritziz, ez genuke ezer ordaindu beharko Interneteko produktuak deskargatzearen truke.
- B. Aukerarik badago hobe dela ez ordaintzea dio Izagirrek.
- C. Izagirre, zalantzarik gabe, Interneteko produktu guztiak ordaindu behar direla dio.
- D. Izagirrek uste Interneteko produktuek gehigarriak behar dituztela eta hala jendeak ordaintzea onartuko du.

1.6.

- A. Internetek zaildu egin du sortzaileen lana, produktu kantitate gehiago saldu behar dutelako.
- B. Sortzaileek, Interneti esker, beren lana errazago zabaldu eta ezagutarazi ahal dute.
- C. Vimeo eta You Tube kanalak sortzaileen arteko lehia handitzeko sortu dira.
- D. Oso erraza da sortzaileentzat beren lana ezagutaraztea Interneten eta ospetsu bihurtzea.



1.7.

- A. Produktuaren kantitatea dela eta kezkatuta dabilta sortzaileak.
- B. Sortzaileek aukera handiagoak dituzte Internet bidez, baina, aldi berean, kalitatezko produktuak sortzera behartuta daude.
- C. Eduki asko topatu daitezke Interneten eta ezaugarri hori kalitatearen seinale da.
- D. Hainbeste eduki egoteak produktuen kalitate eskasa dakar.

2. Zein da testuaren ideia nagusia? (0,5 ptu)

3. Testua sortu den egoera komunikatiboaren ezaugarriak deskribatu eta arrazoitu erantzuna (erabilera-eremua, testu tipoa eta testu-generoa, igorlea, hartzailea, testuaren helburua, hizkuntza erregistroa...). (1,5 puntu)

4. Egin testuaren laburpena. (1,5 ptu)

5. Irakurri jatorrizko testutik ateratako beste pasarte hau eta bete hutsuneak azpiko hitzetako bat jarrita. Bi hitz sobera daude. (1 ptu)

dagokionez	inoiz	egia da	antza	arren	ere	ondoren
------------	-------	---------	-------	-------	-----	---------

(...) Astean hamaika telesail eta film luze ikusten ditu Gaizkak, eta, zinemara joaten saiatzen den , gehienak Internetetik jaitsi eta etxeko telebistaren aurrean ikusten ditu: "Zinema aretoetara asko joaten naiz, azken aldian denboraz larri banabil , baina astean bi aldiz joaten saiatzen naiz. Gero, , munduko piratarik handienetako bat naizela, asko deskargatzen dut, baina, ikusitakoa gustatzen baldin bazait, DVDa erosi egiten dut", azaldu digu.

Musikari ere Internet erabiltzen du Gaizkak. "Urtebetez Spotifyn harpidetuta egon nintzen eta oso ongi dago. Hainbat zerrenda egiteko aukera ematen du, kantu bat entzun , beste batzuk gomendatzen dizkigu... Egile berriak ezagutzen laguntzen du, eta oso interesgarria da hori guztia. Spotify bezalako plataformek oso ongi funtzionatzen dute, gehigarri asko eskaintzen dituztelako. Horrekin lortzen dute arrakasta", esan digu Gaizkak.

6. Bilatu azpiko testuan hitz hauen sinonimoak (Oharra: Hitz batzuk deklinatu gabe daude). (0,8 ptu)

- | | |
|--------------------|-----------|
| 1. zabaldu | 2. kopuru |
| 3. lortzeko moduan | 4. iritsi |
| 5. desberdindu | 6. asko |
| 7. adibidez | 8. onura |

Interneten edukiak jartzeko aukerak abantaila asko ekarri ditu. Esaterako, sortzaileen lana hedatzen lagundu du: "Orain dela urte batzuk, zailena jendearengana heltzea zen. Gaur egun errazagoa da hori. Esaterako, websailen kasuan, proiektua bukatu eta Youtuberaren edo Vimeoren bidez argitaratu dezakegu. Hala ere, konpetentzia gogorragoa dago, telesail, pelikula, musika edo disko asko baitaude Interneten eskuragarri, eta lehiakortasun horrek besteengandik bereizi beharra sortzen du".



Bestalde, Gaizkaren hitzetan, ikus-entzunezko produktuetan kantitateak ez ezik, kalitateak ere gora egin du: "Telesailetan, esaterako, gainerakoetatik bereizteko eduki asko garatzen ari dira, eta horretarako gidoiak eta istorioak izugarri landu eta hobetu dira". Beraz, Internetek lehia handitzea eta edukiak gero eta hobeak izatea ere ekarri du.

7. Berridatzi esaldiak azpian ematen den hitza erabiliz (adibidean bezala). (0,6 ptu)

Adibidea:

Modu errazean eta azkarrean eskura dezakegu edozein eduki, baina kontsumitzen ditugun eduki gehienak debalde lortzen ditugu.

ordea

Modu errazean eta azkarrean eskura dezakegu edozein eduki. Kontsumitzen ditugun eduki gehienak, **ordea**, debalde lortzen ditugu.

7.1. Edukien sortzaileek irabaziren bat izatea beharrezkoa dute sortzen jarraitzeko. Horregatik, formula berriak bilatzen ari dira.

dutenez

7.2. (...) nire ustez, Internet erabiltzeko ohitura duenak ez ditu edukiak modu honetan kontsumituko.

uste dut

7.3. Hala ere, kompetentzia gogorragoa dago, telesail, pelikula, musika edo disko asko baitaude Interneten.

izan ere

8. Hemen dituzu testutik atera ditugun zenbait antolatzaile eta lokailu. Lotu horietako bakoitza bere esanahiarekin, adibidean bezala. (0,6 ptu)

hau da - beraz - hala eta guztiz ere - bestalde - ere - ordea - hala ere

Lokailua/ Testu antolatzailea	Esanahia
hau da	Azalpena gehitzeko, ideia bat zehazteko erabiltzen da.
1	Bi perpaus edo ideien arteko ondoriozko erlazioa adierazten du(te).
2	Emendiozko lokailua da (dira), aurretik esandakoari zerbait gehitu edo gaineratzeko erabiltzen da (dira), edota esandakoa indartzeko.
3	Aurkaritza adierazteko erabiltzen da (dira), hau da, aurretik esandakoaren kontrako ideia adierazteko.

ERANTZUNAK

1. Testuaren ulermena. Aukeratu erantzun egokia testuak dioena kontuan hartuta. Biribildu erantzun zuzena. (3,5 ptu)

Galdera	Erantzuna
1.1.	B. Interneten doan deskargatzen diren produktuak direla eta konponbideak bilatzen ari dira sortzaileak.
1.2.	C. Interneten, batez ere, musika eta filmak deskargatzen dira.
1.3.	C. Kontsumitzaileak zerbait egiteko asmoa erakusten hasi dira.
1.4.	A. Bere lanerako Internet baliatzen duen kazetaria da Gorka Izagirre.
1.5.	D. Izagirrek uste Interneteko produktuek gehigarriak behar dituztela eta hala jendeak ordaintzea onartuko du.
1.6.	B. Sortzaileek Interneti esker beren lana zabaldu eta ezagutarazi ahal dute.
1.7.	B. Sortzaileek aukera handiagoak dituzte Internet bidez, baina, aldi berean, kalitatezko produktuak sortzera behartuta daude.

2. Zein da testuaren ideia nagusia? (0,5 ptu)

Internetetik gero eta ikus-entzunezko produktu gehiago eskuratzen ditugu doan, kontsumitzaileak kontzientzia hartzen hasiak badaude ere, sortzaileak irtenbide bila dabilta.

3. Testua sortu den egoera komunikatiboaren ezaugarriak deskribatu eta arrazoitu erantzuna (erabilera-eremua, testu tipoa eta testu-generoa, igorlea, hartzailea, testuaren helburua, hizkuntza erregistroa...). (1,5 puntu)

Erabilera-eremuari dagokionez, gizarte-komunikabideetako testua da eta **igorlea** Ariane Retegi da. Testua egunkari batean edo dibulgazio aldizkari batean argitaratutako artikulua zein erreportaje bateko txatala da eta, bertan gai bati buruzko informazioa eman eta iritzia eskatzen zaio aditu bati. Beraz, **testu-tipoari** dagokionez, azalpen-argudiozkoa da, idazleak gai bati buruzko informazioa helarazten du datuetan oinarrituta (deskarga kopuruak) eta, aldi berean, argudioak ematen ditu, beste pertsona baten iritziaren eta ikuspuntuaren bidez, Interneteko doaneko deskargei, jendearen ohitura eta gaur egungo produktuen kalitateari buruz. **Testu-generoari** dagokionez, gorago esan bezala, erreportaje bateko txatala da eta elkarrizketa bat jasotzen du. **Komunikazio helburua** da irakurleei informazioa helarazteaz gain doaneko deskargen inguruan gogoeta eginaraztea eta ikusaraztea produktu horiek ordaintzeko beharraz. **Hartzailea**, publiko mota zabala da; izan ere, irakurle orori zuzentzen zaio testu honen bidez.

Hizkuntza erregistroari dagokionez, estandarra da eta erregistro formala du, ez dago lagunarteko espresiorik. Ez da maila jasoko testua, hitz arruntak, teknizismo kutsurik gabeak ditu; izan ere, publiko zabalak irakurtzeko asmoz idatzitako testua da.

4. Egin testuaren laburpena. (1,5 ptu)

Gaur egun, duela hogeitaz urte ez bezala, gero eta ikus-entzunezko produktu gehiago kontsumitzen ditugu Internet bidez, baina produktu gehienak doan deskargatzen ditugu, sortzaileen lana eta dirua irabazteko duten eskubidea kontuan hartu gabe. Gorka Izagirre kazetariak uste du zerbait ordaindu beharko litzatekeela; betiere, kontsumitzaileari zenbait berezia eskainiz gero. Internet, bestalde, sortzaileentzat erakusleihu aparta bihurtu da eta sortzaileen arteko lehiak jendearengana heltzeko eta arrakastatsuak izateko produktuen kantitatea eta kalitatea ekarri du.

5. Irakurri jatorrizko testutik ateratako beste pasarte hau eta bete hutsuneak azpiko hitzetako bat jarrita. Bi hitz sobera daude. (1 ptu)

	inoiz		antza			
--	--------------	--	--------------	--	--	--

(...) Astean hamaika telesail eta film luze ikusten ditu Gaizkak, eta, zinemara joaten saiatzen den **arren**, gehienak Internetetik jaitsi eta etxeko telebistaren aurrean ikusten ditu: “Zinema aretoetara asko joaten naiz, azken aldian denboraz larri banabil **ere**, baina astean bi aldiz joaten saiatzen naiz. Gero, **egia da**, munduko piratarik handienetako bat naizela, asko deskargatzen dut, baina, ikusitakoa gustatzen baldin bazait, DVDa erosi egiten dut”, azaldu digu.

Musikari **dagokionez** ere Internet erabiltzen du Gaizkak. “Urtebetez Spotifyn harpidetuta egon nintzen eta oso ongi dago. Hainbat zerrenda egiteko aukera ematen du, kantu bat entzun **ondoren**, beste batzuk gomendatzen dizkigu... Egile berriak ezagutzen laguntzen du, eta oso interesgarria da hori guztia. Spotify bezalako plataformek oso ongi funtzionatzen dute, gehigarri asko eskaintzen dituztelako. Horrekin lortzen dute arrakasta”, esan digu Gaizkak.

6. Bilatu azpiko testuan hitz hauen sinonimoak (Oharra: Hitz batzuk deklinatu gabe daude). (0,8 ptu)

zabaldu	hedatzen (hedatu)	kopuru	kantitate
lortzeko moduan	eskuragarri	iritsi	heltzea (heldu)
desberdindu	bereizi	asko	izugarri
adibidez	esaterako	onura	abantaila

Interneten edukiak jartzeko aukerak **abantaila** asko ekarri ditu. **Esaterako**, sortzaileen lana **hedatzen** lagundu du: “Orain dela urte batzuk, zailena jendearengana **heltzea** zen. Gaur egun errazagoa da hori. Esaterako, websailen kasuan, proiektua bukatu eta Youtuberen edo Vimeoren bidez argitaratu dezakegu. Hala ere, konpetentzia gogorragoa dago, telesail, pelikula, musika edo disko asko baitaude Interneten **eskuragarri**, eta lehiakortasun horrek besteengandik **bereizi** beharra sortzen du”.

Bestalde, Gaizkaren hitzetan, ikus-entzunezko produktuetan **kantitateak** ez ezik, kalitateak ere gora egin du: “Telesailetan, esaterako, gainerakoetatik bereizteko eduki asko garatzen ari dira, eta horretarako gidoiak eta istorioak **izugarri** landu eta hobetu dira”. Beraz, Internetek lehia handitzea eta edukiak gero eta hobeak izatea ere ekarri du.

7. Berridatzi esaldiak azpian ematen den hitza erabiliz adibideak bezala. (0,6 ptu)

7.1. Edukien sortzaileek irabaziren bat izatea beharrezkoa **dutenez**, sortzen jarraitzeko, formula berriak bilatzen ari dira

7.2. **Uste dut** Internet erabiltzeko ohitura duenak ez dituela edukiak modu honetan kontsumituko

7.3. Hala ere, konpetentzia gogorragoa dago; **izan ere**, telesail, pelikula, musika edo disko asko daude Interneten.

8. Hemen dituzu testutik atera ditugun zenbait antolatzaile eta lokailu. Lotu horietako bakoitza bere esanahiarekin, adibidean bezala. (0,6 ptu)

Lokailua/ Testu antolatzailea	Esanahia
hau da	Azalpena gehitzeko, ideia bat zehazteko erabiltzen da.
beraz	Bi perpaus edo ideien arteko ondoriozko erlazioa adierazten du.
bestalde ere	Emendiozko lokailuak dira , aurretik esandakoari zerbait gehitu edo gaineratzeko erabiltzen dira edota esandakoa indartzeko.
hala eta guztiz ere hala ere ordea	Aurkaritza adierazteko erabiltzen dira, hau da, aurretik esandakoaren kontrako ideia adierazteko.

ERANTZUNAK

1. Testuaren ulermena. Aukeratu erantzun egokia testuak dioena kontuan hartuta. Biribildu erantzun zuzena. (3,5 ptu)

Galdera	Erantzuna
1.1.	B. Interneten doan deskargatzen diren produktuak direla eta konponbideak bilatzen ari dira sortzaileak.
1.2.	C. Interneten, batez ere, musika eta filmak deskargatzen dira.
1.3.	C. Kontsumitzaileak zerbait egiteko asmoa erakusten hasi dira.
1.4.	A. Bere lanerako Internet baliatzen duen kazetaria da Gorka Izagirre.
1.5.	D. Izagirrek uste Interneteko produktuek gehigarriak behar dituztela eta hala jendeak ordaintzea onartuko du.
1.6.	B. Sortzaileek Interneti esker beren lana zabaldu eta ezagutarazi ahal dute.
1.7.	B. Sortzaileek aukera handiagoak dituzte Internet bidez, baina, aldi berean, kalitatezko produktuak sortzera behartuta daude.

2. Zein da testuaren ideia nagusia? (0,5 ptu)

Internetetik gero eta ikus-entzunezko produktu gehiago eskuratzen ditugu doan, kontsumitzaileak kontzientzia hartzen hasiak badaude ere, sortzaileak irtenbide bila dabilta.

3. Testua sortu den egoera komunikatiboaren ezaugarriak deskribatu eta arrazoitu erantzuna (erabilera-eremua, testu tipoa eta testu-generoa, igorlea, hartzailea, testuaren helburua, hizkuntza erregistroa...). (1,5 puntu)

Erabilera-eremuari dagokionez, gizarte-komunikabideetako testua da eta **igorlea** Ariane Retegi da. Testua egunkari batean edo dibulgazio aldizkari batean argitaratutako artikulua zein erreportaje bateko txatala da eta, bertan gai bati buruzko informazioa eman eta iritzia eskatzen zaio aditu bati. Beraz, **testu-tipoari** dagokionez, azalpen-argudiozkoa da, idazleak gai bati buruzko informazioa helarazten du datuetan oinarrituta (deskarga kopuruak) eta, aldi berean, argudioak ematen ditu, beste pertsona baten iritziaren eta ikuspuntuaren bidez, Interneteko doaneko deskargei, jendearen ohitura eta gaur egungo produktuen kalitateari buruz. **Testu-generoari** dagokionez, gorago esan bezala, erreportaje bateko txatala da eta elkarrizketa bat jasotzen du. **Komunikazio helburua** da irakurleei informazioa helarazteaz gain doaneko deskargen inguruan gogoeta eginaraztea eta ikusaraztea produktu horiek ordaintzeko beharraz. **Hartzailea**, publiko mota zabala da; izan ere, irakurle orori zuzentzen zaio testu honen bidez.

Hizkuntza erregistroari dagokionez, estandarra da eta erregistro formala du, ez dago lagunarteko espresiorik. Ez da maila jasoko testua, hitz arruntak, teknizismo kutsurik gabeak ditu; izan ere, publiko zabalak irakurtzeko asmoz idatzitako testua da.

4. Egin testuaren laburpena. (1,5 ptu)

Gaur egun, duela hogeit hamar urte ez bezala, gero eta ikus-entzunezko produktu gehiago kontsumitzen ditugu Internet bidez, baina produktu gehienak doan deskargatzen ditugu, sortzaileen lana eta dirua irabazteko duten eskubidea kontuan hartu gabe. Gorka Izagirre kazetariak uste du zerbait ordaindu beharko litzatekeela; betiere, kontsumitzaileari zenbait berezia eskainiz gero. Internet, bestalde, sortzaileentzat erakusleihu aparta bihurtu da eta sortzaileen arteko lehiak jendearengana heltzeko eta arrakastatsuak izateko produktuen kantitatea eta kalitatea ekarri du.

5. Irakurri jatorrizko testutik ateratako beste pasarte hau eta bete hutsuneak azpiko hitzetako bat jarrita. Bi hitz sobera daude. (1 ptu)

	inoiz		antza			
--	--------------	--	--------------	--	--	--

(...) Astean hamaika telesail eta film luze ikusten ditu Gaizkak, eta, zinemara joaten saiatzen den **arren**, gehienak Internetetik jaitsi eta etxeko telebistaren aurrean ikusten ditu: “Zinema aretoetara asko joaten naiz, azken aldian denboraz larri banabil **ere**, baina astean bi aldiz joaten saiatzen naiz. Gero, **egia da**, munduko piratarik handienetako bat naizela, asko deskargatzen dut, baina, ikusitakoa gustatzen baldin bazait, DVDa erosi egiten dut”, azaldu digu.

Musikari **dagokionez** ere Internet erabiltzen du Gaizkak. “Urtebetez Spotifyn harpidetuta egon nintzen eta oso ongi dago. Hainbat zerrenda egiteko aukera ematen du, kantu bat entzun **ondoren**, beste batzuk gomendatzen dizkigu... Egile berriak ezagutzen laguntzen du, eta oso interesgarria da hori guztia. Spotify bezalako plataformek oso ongi funtzionatzen dute, gehigarri asko eskaintzen dituztelako. Horrekin lortzen dute arrakasta”, esan digu Gaizkak.

6. Bilatu azpiko testuan hitz hauen sinonimoak (Oharra: Hitz batzuk deklinatu gabe daude). (0,8 ptu)

zabaldu	hedatzen (hedatu)	kopuru	kantitate
lortzeko moduan	eskuragarri	iritsi	heltzea (heldu)
desberdindu	bereizi	asko	izugarri
adibidez	esaterako	onura	abantaila

Interneten edukiak jartzeko aukerak **abantaila** asko ekarri ditu. **Esaterako**, sortzaileen lana **hedatzen** lagundu du: “Orain dela urte batzuk, zailena jendearengana **heltzea** zen. Gaur egun errazagoa da hori. Esaterako, websailen kasuan, proiektua bukatu eta Youtuberen edo Vimeoren bidez argitaratu dezakegu. Hala ere, konpetentzia gogorragoa dago, telesail, pelikula, musika edo disko asko baitaude Interneten **eskuragarri**, eta lehiakortasun horrek besteengandik **bereizi** beharra sortzen du”.

Bestalde, Gaizkaren hitzetan, ikus-entzunezko produktuetan **kantitateak** ez ezik, kalitateak ere gora egin du: “Telesailetan, esaterako, gainerakoetatik bereizteko eduki asko garatzen ari dira, eta horretarako gidoiak eta istorioak **izugarri** landu eta hobetu dira”. Beraz, Internetek lehia handitzea eta edukiak gero eta hobeak izatea ere ekarri du.

7. Berridatzi esaldiak azpian ematen den hitza erabiliz adibideak bezala. (0,6 ptu)

7.1. Edukien sortzaileek irabaziren bat izatea beharrezkoa **dutenez**, sortzen jarraitzeko, formula berriak bilatzen ari dira

7.2. **Uste dut** Internet erabiltzeko ohitura duenak ez dituela edukiak modu honetan kontsumituko

7.3. Hala ere, konpetentzia gogorragoa dago; **izan ere**, telesail, pelikula, musika edo disko asko daude Interneten.

8. Hemen dituzu testutik atera ditugun zenbait antolatzaile eta lokailu. Lotu horietako bakoitza bere esanahiarekin, adibidean bezala. (0,6 ptu)

Lokailua/ Testu antolatzailea	Esanahia
hau da	Azalpena gehitzeko, ideia bat zehazteko erabiltzen da.
beraz	Bi perpaus edo ideien arteko ondoriozko erlazioa adierazten du.
bestalde ere	Emendiozko lokailuak dira , aurretik esandakoari zerbait gehitu edo gaineratzeko erabiltzen dira edota esandakoa indartzeko.
hala eta guztiz ere hala ere ordea	Aurkaritza adierazteko erabiltzen dira, hau da, aurretik esandakoaren kontrako ideia adierazteko.

GALDEREN ETA EZAGUTZA ADIERAZLEEN ARTEKO LOTURA

GALDERA	EZAGUTZA ADIERAZLEAK
1	3.3. Gizarte bizitzarako eta bizitza akademikorako garrantzizkoak diren informazioak interpretatzea.
2	3.1. Idatzizko testuak ulertzea eta horien asmoa eta xedea antzematea.
3	3.4. Testuen ezaugarri testuingurukoak, antzematea.
3	3.4. Testuen ezaugarri testuingurukoak eta horien formatua antzematea.
4	2.4. Testuen edukia zehatz jasoko duen laburpena egitea.
5	3.3. Arlo akademikorako garrantzizkoak diren informazioak interpretatzea.
6	3.4. Testuen ezaugarri hizkuntzakoak (lexikoak), antzematea.
7, 8	3.4. Testuen ezaugarri hizkuntzakoak antzematea
8	3.3. Arlo akademikorako garrantzizkoak diren informazioak interpretatzea.